

'AIRE, AIRE' PROGRAMAREN HURRENGO ATALA SAGARDOTEGIEI BURUZKO SAIO BEREZIA IZANGO DA

ETBn txotx egingo dute ostiralean

■ Datorren ostiralean, hilak 17, sagardotegiei buruzko saio berezia emitituko dute 'Aire, aire' programako kideek. Sagardotegiak zabaltzeko garaia laster hasiko dela eta, honen inguruko monografikoa egingo dute, eta gaia ezin hobeto girotzeko Astigarragako Bereziartua sagardotegian egingo dute.

I. Basterretxea / Donostia

DATORREN ostegun gauean futbola emitituko dute ETBletik. Hori dela eta, *Aire, aire* saioa ostiralera atzeratu dute. Baina emisio egunaz gainera, saioaren edukia eta dekoratua ere ezohikoak izango dira. «San Sebastian egunaren —urtarrilak 20— bueltan hasten denez sagardotegiak zabaltzeko denboraldia, guk horren inguruko monografikoa egingo dugu, eta sagardotegi batean gainera», adierazi digu Jon Lamarkak. Jose Mari Iriondorekin batera *Aire, Aire* saioko zuzendaria da Lamarka.

Astigarragako Bereziartua sagardotegitik egingo dute programa. «Beste bospasei sagardotegi ere ikusi genituen, baina platoa muntatzeko egokiena hauxe iruditu zitzaigun, beste batzuek sabaia baxuegi dutelako... eta platotik irteterakoan teknikoki zenbait gauzak arazoak sortzen dituztelako». Programa ez da zuzenean izango: «Ziurrenik ostegunean grabatuko dugu; hala ere, murritzetarik gabe emitituko dugu, zuzenean izango balitz bezala».



Ainhoa Goikoetxeak eta Jose Mari Iriondok aurkeztuko dute saioa.

Betiko antzera, 70 edo 80 minutu iraungo du saioak, baina minutu guztiak sagardoari eskainiko dizkiete. «Garai bateko sagardotegiak nolakoak ziren, egungoak nolakoak diren, sagardotegietako gastronomia zertan oinarritzen den, sagardoa egiteko teknikaren bilakaera nolakoak izan den... ez oso modu sakonean, baina sagardoaren inguruko arlo gehienak aztertzen saiatuko gara». Horretarako, beste batzuen artean Jose Miguel Bereziartua Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen lehendakaria, sagardotegietako sukaldaritzako adituak, eta Sagardogileen

Elkartek joan den urtean omendu zituen bi sagardogile zahar han izango dira, Francisco Urruzola eta Eugenio Arana.

Ohi bezala, Ainhoa Goikoetxeak eta Jose Mari Iriondok aurkeztuko dute saioa, eta *Aire, Aire* programan aurpegi ezagunak diren Jose Landa eta Alfredo Elortza ere han izango dira. Horiez gainera, berrogeita hamarren bat lagun izango dira euren inguruan, sagardotegiko giroan. Ez da txuleta eta bakailao tortilarik eta sagardorik faltako, eta «txotx ere egingo dugu guztiok!». Noski, trikitalariak ere izango dira giroa

alaitzen, «seguruenik Epelde eta Iturbide», eta Bixente Barandiaranen bertsoak ere entzungo dira. X

Bereziartua
sagardotegitik egingo
dute programa, eta
txuleta, bakailao
tortilak eta sagardoa
ez dira faltako, eta
txotx ere egingo dute,
noski!

Garai bateko
sagardotegiak nolakoak
ziren, egungoak
nolakoak diren,
sagardotegietako
gastronomia zertan
oinarritzen den...
azalduko dute saioan